

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 21/2015 Foru Dekretua, apirilaren 14koa, lehentasunezko mezenasgo jarduerak onartzen dituena 2015 ekitaldirako

Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubidearenak eta mezenasgorako zerga pizgarrienak, arau esparrua ezartzen du sektore pribatuak lehentasunezko mezenasgo jarduerak eta programak finantzatzean izango duen parte hartzeari buruz.

Hain zuzen ere, foru arau horren 29. artikulua 1. paragrafoak arautzen du Arabako Foru Aldundiak zehaztuko duela ekitaldi bakoitzeko lehentasunezko mezenasgo jardueren edo programen zerrenda, foru arau horretan bertan adierazitako interes orokorreko helburuen esparruan. Agindu horrek foru dekretu hau onartu beharra ekarri du.

Artikulu horren arabera, mezenasgoko lehentasunezko jardueretan eta programetan erabiltzen diren kopuruak araubide berezi bat dute. Kopuruak garbiak eta soilak izan behar dira; ezin dute eduki inolako kontraprestaziorik. Araubide berezi hori honetan datza, laburbilduta:

a) Lehentasunezko zatik jo diren jarduera edo programetarako diru kopuruak gastu kengarri izango dira sozietateen gaineko zergaren eta establezimendu iraunkorraren bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren oinarria zehazterakoan; enpresarientzat eta profesionalentzat, berriz, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zuzeneko zenbatespenaren arabidean.

b) Sozietateen gaineko zergaren edo establezimendu iraunkorraren bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek kendu egin dezakete zehaztutako kuota (ezarpen bikoitzagatikoen kenkariaren zenbatekoan kuota osoa gutxitzetik ateratzen den kuota likidotik eta, hala badagokio, hobarietatik) lehentasunezko zatik jotako jarduera edo programetarako diru kopuruaren ehuneko 18; baita publizitate babeserako kontratuak direla-eta emandako dirua ere.

c) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek, zuzeneko zenbatespenaren bidez egiten badituzte ekonomia jarduerak, kendu egin ditzakete kuota osotik lehentasunezko zatik jotako jarduera edo programetarako diru kopuruaren ehuneko 18; baita publizitate babeserako kontratuak direla-eta emandako dirua ere.

d) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren gainontzeko subjektu pasiboek kendu egin ditzakete kuota osotik lehentasunezko zatik jotako jarduera edo programetarako diru kopuruaren ehuneko 30.

Hortaz, foru dekretu honen xedea da zehaztea 2015eko ekitaldirako zer jarduera edo programa izango diren lehentasunezkoak eta zenbait jarduera lehentasunezko izendatzeko baldintzak eta prozedura, uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubidearenak eta mezenasgorako zerga pizgarrienak, 29. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikulua hirugarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da aginduzkoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honen helburua da garatzea uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrienaren, 29. artikulua.

2. artikulua. 2015ean lehentasuna izango duten jardueren zerrenda

Bat. Ondoko jarduera edo programa hauek izango dira lehentasunezkoak 2015eko ekitaldian, uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrienaren, 29. artikulua onorioetarako:

a) Gizarte zerbitzuen esparruan:

Onura publikokotzat jotako eta gizarte zerbitzuetako jarduerak egiten dituzten gizarte erakundeei emandako kopuruak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ezarri ahal izateko, Arabako Foru Aldundiak aintzatetsi egin beharko du gizarte erakundea.

b) Ingurumenaren esparruan:

1. Arabako parke naturaletako ingurumena berreskuratzeko, onik zaintzeko, ikertzeko eta zabaltzeko programetarako Arabako Foru Aldundiari emandako diru kopuruak.

2. Arabako Lurralde Historikoko bizikleta bideak eraiki, hobetu eta onik zaintzeko obrak finantzatzeko Arabako Foru Aldundiari emandako diru kopuruak.

3. Arabako Ibilbide Berdeen Sarea eraiki, hobetu, onik zaindu, sustatu eta zabaltzeko Arabako Foru Aldundiari emandako diru kopuruak.

c) Garapen teknologikoaren esparruan:

Ikerketa, garapen edo berrikuntza jarduerak egiten dituzten pertsona eta erakundeei emandako diru kopuruak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ezarri ahal izateko, Arabako Foru Aldundiak aintzatetsi egin beharko du kasuan kasuko pertsona edo erakundea.

d) Kulturaren esparruan:

1. Arabako Artium Fundazioa.

2. Santa Maria Katedrala Fundazioa.

3. Gasteizko Jazzaldia Elkarte.

4. Gasteizko Arte eta Lanbide Eskola.

5. Gasteizko Arte Sakratuaren Museoa.

6. Iruña Veleiaren eta Arkaiako erromatar termen arkeologia proiektuak gauzatzeko EHUri emandako diru kopuruak.

7. Artziniegako Etnografia Museoa.

8. Euskaltzaindia.

9. Euskalerraren Adiskideen Elkarte.

10. Eusko Ikaskuntza.

11. Kultura intereseko eta Arabako Foru Aldundiaren jabetzako ondasunak, kultura interesekotzat jotakoak, zaharberritzeko eta/edo birgaitzeko jarduerak egiteko Arabako Foru Aldundiari emandako diru kopuruak.

12. Añanako Gatz Harana Fundazioari bere helburuak betetzeko emandako diru kopuruak.

13. Gasteizko Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalako Gune Elkartua.

14. Azkena Rock Festival sustatu eta antolatzeko ARF Vitoria-Gasteiz SL enpresari emandako diru kopuruak.

15. Gasteizko Telebista eta Irrati jaialdia - FesTVal sustatu eta antolatzeko Fila 2 kultura elkarteari emandako diru kopuruak.

16. Asparreneko Umore Antzerkiaren XXII. Jaialdia antolatzeko Asparreneko Udalarari emandako diru kopuruak.

17. Arte eszenikoekin loturiko jarduerak sustatu eta antolatzeko Arabako Foru Aldundiari emandako diru kopuruak.

18. Gasteiz Hiri Napoleonikoen Europar Federazioan sartzearen ondorioz egiten diren jardunetarako Gasteizko Udalarari emandako diru kopuruak.

19. "Lírica de la Tierra" Kultura Elkartea

e) Kirolaren esparruan:

1. 5+11 Fundazioa.

2. Alava Vive Deporte Fundazioa (ALVIDE).

3. Gasteizko Triatloia egiteko Maratlón Kultura eta Kirol Elkarteari emandako diru kopuruak.

4. Gasteizko Martín Fiz Nazioarteko Maratoia egiteko Maratlón Kultura eta Kirol Elkarteari emandako diru kopuruak.

5. Arabako Lurralde Historikoa ordezkatzen duten kirol erakundeei, nazioartean jarduten dutenei, emandako diru kopuruak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ezarri ahal izateko, Arabako Foru Aldundiak aintzatetsi egin beharko du kirol erakundea.

f) Enpresen gizarte erantzukizunaren esparruan:

"Fundación Laboral San Prudencio" Fundazioa.

g) Gizartearen esparruan:

1. Fernando Buesa Fundazioa.

2. Saharako Arabiar Errepublikako Demokratikoaren (SAED) Adiskideen Arabako Elkartea

h) Euskara sustatzearen esparruan.

Araba Euskaraz 2015 ekitaldiaren antolatzaileei emandako diru kopuruak.

i) Interes orokorreko bestelako helburuetako esparruan:

1. Euskampus proiekturako Euskal Herriko Unibertsitateari emandako diru kopuruak.

2. Jarduera hauek egiteko Gasteizko eta Arabako Aurrezki Kutxa Fundazioari emandako diru kopuruak: Vital Kutxa Fundazioaren aretoko erakusketak, Astearte Musikalak, Euskal Zinemaren Astea, Jaibus Vital, Vital Araban zehar Programa, eskolako agendak eta Araba Ekinean: Enpresen Lasterketa.

Bi. Era berean, lehentasunezkoak dira estatuko eta lurralde historikoetako organo eskudunek halakotzat jo, elkarri aitortu eta Arabako Foru Aldundiak aurreko paragrafoan onartutako jarduerak.

3. artikulua. Lehentasunezko jarduerak kirol esparruan

Foru dekretu honen 2. artikuluan kirol esparruan lehentasunezko izendatutako jardueraz gain, Arabako Lurralde Historikoko emakumezkoen kirol talde eta atalei emandako diru kopuruak, bai eta Arabako Lurralde Historikoan garatutako kirol jarduera eta lehiaketei emandakoak ere, baldin eta horietan emakumeak badira protagonista edo emakumeen parte hartzea eta genero estereotipoak apurtzea eta emakumezkoen ezagutza soziala sustatzen badute. Hau da, jarduera horiek guztiak lehentasunezko jarduera izango dira kirol esparruan, baldin eta Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

4. artikulua. Kirol esparruko lehentasunezko jarduera dela aitortzeko prozedura

Aurreko artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, 2015eko ekitaldian, kirol esparruan beren jarduerak lehentasunezkoak izan daitezen interesa duten pertsona fisikoek eta juridikoek 2015eko abenduaren 1a baino lehen eskatuko diote Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari. Eskaerarekin batera jarduera lehentasunezko izan dadila eskatzen duen erakundearen proiektua ere aurkeztuko da, eta proiektu horrek, besteak beste, diru sarreren eta gastuen aurreikuspen bat jasoko du.

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez aitortuko zaio lehentasuna jarduera bati kirol esparruan. Horretarako, ezinbestekoa izango da aurreko paragrafoan aipatzen den eskaera aurkeztea eta foru dekretu honetan eta, 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak ezarritako betekizunak betetzea.

d) Ezer ebatzi aurretik, espediente bidaliko zaio Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari.

5. artikulua. Ziurtagiria

Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubidearenak eta mezenasgorako zerga pizgarrienak, 29. artikuluan jasotako zerga onurak aplikatu ahal izateko beharrezkoa izango da zergapekoek zergaren autolikidazioaz gainera kenkaria sortu duten kopuruak lehentasunezko jarduera edo programetarako erabili direla frogatzen duen ziurtagiria aurkeztea.

Ziurtagiri hori zergapekoek emandako kopuruak jasoko dituzten erakundeek berek eman beharrezkoa da.

Aurreko 2. artikulua Bat paragrafoaren b) idatz zatiaren 1., 2. eta 3. puntuetako kasuetan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eman behar du artikulua honetako lehen bi paragrafoetan aipatzen den ziurtagiria.

Aurreko 2. artikulua lehenengo paragrafoaren d) idatz zatiaren 11. eta 17. puntuetako kasuetan, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzak eman behar du artikulua honetako lehen bi paragrafoetan aipatzen den ziurtagiria.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena

Foru dekretu honen 2. artikulua Bat paragrafoaren a) idatz zatian xedatutakoaren ondorioetarako, ondoko jarduera hauek ere lehentasunezkoak izaten jarraituko dute 2015. urtean: Arabako Foru Aldundiak urtarrilaren 22ko 3/2008 Foru Dekretuaren bidez 2008ko ekitaldirako aintzatetsitako erakundeek gizarte zerbitzuen esparruan egindako jarduera edo programak; baita Arabako Foru Aldundiak martxoaren 3ko 20/2009 Foru Dekretuaren bidez 2009ko ekitaldirako aintzatetsitako erakundeak eta Arabako Foru Aldundiak otsailaren 22ko 12/2011 Foru

Dekretuaren bidez 2011ko ekitaldirako eta urtarrilaren 31ko 3/2012 Foru Dekretuaren bidez 2012ko ekitaldirako aintzatetsitako erakundeek egindakoak ere.

Bigarrena

Foru dekretu honen 2. artikulua lehen paragrafoaren a) idatz zatian xedatutakoaren ondorioetarako, Asociación Ingeniería para la cooperación-Lankidetzarako ingeniariaritzaren Elkartea aintzatesten da.

Hirugarrena

Foru dekretu honen 2. artikulua lehen paragrafoaren a) idatz zatian xedatutakoaren ondorioetarako, Gasteizko "Arabako Elikagai Bankua" elikagaiak eralgitzearen aurkako Elkartea aintzatesten da.

Laugarrena

Foru dekretu honen 2. artikulua Bat paragrafoaren c) idatz zatian xedatutakoaren ondorioetarako, ondoko jardura hauek ere lehentasunezkoak izaten jarraituko dute 2015. urtean: Arabako Foru Aldundiak Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 16ko 82/2010 Erabakiaren bidez 2010ko ekitaldirako aintzatetsitako erakundeak teknologiaren esparruan egindako jardura edo programak.

Bosgarrena

Foru dekretu honen 2. artikulua Bat paragrafoaren e) idatz zatiaren 5. puntuan xedatutakoaren ondorioetarako, ondoko jardura hauek ere lehentasunezkoak izaten jarraituko dute 2015. urtean: Arabako Foru Aldundiak Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 4ko 118/2008 Erabakiaren bidez 2008ko ekitaldirako aintzatetsitako kirol erakundeak kirolaren esparruan egindako jardura edo programak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehen. Araugintzarako gaikuntza

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio foru dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Indarrean jartzea

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta 2015. urterako izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko apirilaren 14a

Diputatu nagusia

JAVIER DE ANDRÉS GUERRA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

AITOR URIBESALGO LORENZO

Ogasun zuzendaria

JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO